

2022an EAEko musika sorkuntzetan eta ekitaldietan emakumeek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa

2023ko maiatza



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**0. AURKEZPENA**

4

1. AZTERKETAREN METODOLOGIA

5-8

2. KONTZERTUEN AZTERKETA

9-26

2.1. Interpreteen banaketa kontzertuetan, sexuaren arabera. Azterketa horizontala

10

2.2. Musika formazioen banaketa, kideen sexuaren arabera. Azterketa horizontala

11

2.3. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, prezioaren eta doakotasun datuen arabera

12

2.4. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, asteko egunaren arabera

13

2.4.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, asteko egunaren arabera. Azterketa horizontala

14

2.5. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, ordutegiaren arabera

15

2.6. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, hizkuntzaren arabera

16

2.6.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, hizkuntzaren arabera. Azterketa horizontala

17

2.7. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, Lurralde Historikoaren arabera

18

2.7.1. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, Lurralde Historikoaren arabera. Azterketa horizontala

19

2.8. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, kontzertu esparru motaren arabera

20

2.8.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, kontzertu esparru motaren arabera. Azterketa horizontala

21

2.9. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, musika motaren arabera

22

2.9.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, musika motaren arabera. Azterketa horizontala

23

Aurkibidea



2.10. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, musika formazioaren arabera	24
2.11. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, musika formazioaren jatorriaren arabera	25
2.11.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, musika formazioaren jatorriaren arabera. Azterketa horizontala	26
3. DISKOEN AZTERKETA	27-35
3.1. Interpreteen banaketa diskoetan, sexuaren arabera. Azterketa horizontala	28
3.2. Musika formazioen banaketa, kideen sexuaren arabera. Azterketa horizontala	29
3.3. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, diskoaren formatuaren prezioaren arabera	30
3.4. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, hizkuntzaren arabera	31
3.4.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea diskoetan, hizkuntzaren arabera. Azterketa horizontala	32
3.5. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, formatuaren arabera	33
3.5.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea diskoetan, formatuaren arabera. Azterketa horizontala	34
3.6. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, musika formazio motaren arabera	35
4. DATUEN LABURPENA	36-39
4.1. Kontzertuen azterketa	37-38
4.1. Diskoen azterketa	39

Aurkibidea



0- Aurkezpena

2022an EAEko musika sorkuntzetan eta ekitaldietan emakumek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa

Jarraian adierazten diren datuek EAEko musika arloaren errealitatea erakusten dute, emakumek eta gizonek izandako presentzia eta parte hartzea kontuan hartuta.

Bi ataletan banatuta dago azterketa: batetik, musika erakustaldiak (kontzertuak); bestetik, musika sorkuntzak (diskoak).





1. Azterketaren metodologia

Unibertsoa, erabilitako laginak,
ikuspegia eta glosarioa





UNIBERTSOA ETA LAGINA

www.kulturklik.euskadi.eus da azterketa hau egiteko baliatu den informazio iturria. Zehazki, honako hau aztertu da: **2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean EAEn izandako musika ekitaldiei eta urte horretan EAEko musika formazioek argitaratutako diskoei buruz** plataforma horretan jasotako informazioa.

	UNIBERTSOA	LAGINA
MUSIKA ERAKUSTALDIAK (EKITALDIAK)	5.186	385 ekitaldi (konfiantza maila: % 96 – Errore marjina: % 5) 486 emanaldi / funtzio (konfiantza maila: % 98 – Errore marjina: % 5)
MUSIKA SORKUNTZAK	272	122 disko (konfiantza maila: % 95 – Errore marjina: % 6,6)

Azterketa egiteko, bi lagin erabili dira: bat, musika erakustaldientzat, kontzertuentzat alegia (musika jaialdiak kanpoan utzi dira, dituzten ezaugarri bereziengatik); bestea, musika sorkuntzentzat (diskoak). Musika erakustaldien kasuan, laginaren konfiantza maila % 96koa da; diskoen kasuan, % 95koa.

Kontzertuen kasuan, hilabeteka proportzionalki estratifikatutako ausazko lagin sinplea erabili da; musika sorkuntzen kasuan, berriz, 2022an argitaratutako diskoen unibertsoan oinarritutako ausazko lagin sinplea.

IKUSPEGIA ETA GLOSARIOA

AZTERKETAREN IKUSPEGIA

Emakumeek eta gizonek musika arloan duten presentzia eta parte hartzea modu globalean ikertzeko, ikuspegi bikoitzarekin egin da azterketa:

- emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunetan arreta jarrita (azterketa horizontala). Adibidez: *asteburuetan egiten diren 10 kontzertutik 1en baino ez daude emakumeak agertokian.*
- eta emakumez, gizonez edo biez –emakumez eta gizonez– osatutako musika formazioen portaeran dauden ezberdintasunetan arreta jarrita (azterketa bertikala). Adibidez: *emakumeen kontzertu gehienak asteburuetan dira; beren 10 emanalditik 7 ostiraletik igandera bitartean dira.*

AZALPEN METODOLOGIKOAK – GLOSARIOA

- **INTERPRETEAK.** Musika formazioa osatzen duten pertsonen kopurua, kide baten lidergoa oso argia ez denean; kasu horretan, liderra bakarrik zenbatu da, taldea osatzen duten pertsonak kontuan hartu gabe.
- **FORMAZIOAK.** Kontzeptu honen barruan talde guztiak sartzen dira, baita aurreko puntuan aipatutako liderrak buru dituztenak ere. Hauxe da azterketako segmentazio aldagai nagusia, eta honako kategoria hauek hartzen ditu bere baitan: emakumeak bakarrik, gizonak bakarrik eta mistoak.



IKUSPEGIA ETA GLOSARIOA

AZALPEN METODOLOGIKOAK – GLOSARIOA

- **PREZIOA.** Batez besteko prezioa kalkulatzeko, ordainpeko kontzertuak soilik izan dira kontuan; kanpoan utzi dira doako ekitaldiak.
- **ASTEKO EGUNA.** Astegunak eta asteburua honela bereizi dira:
 - astegunak: astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna.
 - asteburua: ostirala, larunbata eta igandea.
- **ORDUTEGIA.** Goiza, arratsaldea eta gaua honela bereizi dira:
 - goiza: 8:00-15:00 bitarteko kontzertuak.
 - arratsaldea: 15:01-20:00 bitartekoak.
 - gaua: 20:01etik aurrerakoak.

2. Kontzertuen azterketa

2022an EAEko musika ekitaldietan emakumek eta gizonek izandako presentzia eta parte hartzea



2.1. Interpreteen banaketa kontzertuetan, sexuaren arabera. Azterketa horizontala

% 18,6

EMAKUMEAK

% 81,4


GIZONAK

Kontzertuetan oholzara igotzen diren gehien-gehienak gizonak dira: interprete guztien % 81,4 gizonak dira; emakumeen presentzia, aldiz, % 18,6koa da.



2.2. Musika formazioen banaketa, kideen sexuaren arabera. Azterketa horizontala

1. grafikoa: formazioak, kideen sexuaren arabera. Azterketa horizontala (%)



1. taula: formazio mistoen banaketa. Azterketa horizontala (%)

	EMAKUMEEK	GIZONAK	GUZTIRA
MISTOA	31,4	68,6	100

Musika formazioak (taldeak, bikoteak eta bakarlariak) kideen sexuaren arabera aztertuta, honako hau ondoriozta daiteke:

- 10 musika formaziotik 6 gizonez bakarrik osatuta daude; 10etik 1 baino ez dago emakumez soilik osatuta.
- Formazio mistoetan ere (bikoteak eta taldeak) emakumeen presentzia minoritarioa da (% 31).



2.3. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, prezioaren eta doakotasun datuen arabera

9,32€

EMAKUMEEN
KONTZERTUAK

11,14€

GIZONEN
KONTZERTUAK

11,82€

FORMAZIO MISTOEN
KONTZERTUAK

2. taula: doakotasunaren azterketa (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEEK BAKARRIK
ORDAINPEKOA	55,3	73,8	55,7
DOAKOA	44,7	26,2	44,3
GUZTIRA	100	100	100

Emakumez bakarrik osatutako formazioak protagonista dituzten kontzertuetarako sarrerak 2€ merkeagoak dira gizonez soilik osatutako formazioen kontzertuetarakoak baino.

Doakotasun datuari dagokionez, emakumez bakarrik osatutako formazioen kontzertuen ia erdiak (% 44,3) doakoak dira; gizonez soilik osatutako formazioen kasuan, % 73,8 ordainpekoak dira.



2.4. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, asteko egunaren arabera

3. taula: banaketa, asteko egunaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
ASTEGUNAK	25,6	19,5	32,3
ASTEBURUA	74,4	80,5	67,7
GUZTIRA	100	100	100


Gizonez bakarrik osatutako formazioak asteburuetan aritzen dira, batez ere: 10 kontzertutik 8 ostiraletan, larunbatetan edo igandeetan ematen dituzte.

Emakumez soilik osatutako formazioek ere kontzertu gehienak asteburuetan ematen dituzte, baina nabarmentzekoa da **10etik 3 astelehenetik ostegunera bitartean** direla.



2.4.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, asteko egunaren arabera. Azterketa horizontala

2. grafikoa: parte hartzea, asteko egunaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Sexuen arteko aldeari erreparatuta, ikus daiteke emakumez bakarrik osatutako formazioen musika jarduera astegunetan ez dagoela asteburuetan bezain desorekatuta gizonez soilik osatutako formazioen jarduerarekin konparatuta. Hala ere, astelehenetik ostegunera bitartean egiten diren kontzertuen % 18n baino ez dute parte hartzen.



2.5. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, ordutegiaren arabera

4. taula: banaketa, ordutegiaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
GOIZA	1,7	3,0	3,2
ARRATSALDEA	25,6	20,8	21,0
GAUA	72,7	76,3	75,8
GUZTIRA	100	100	100

Ez dago alde nabarmenik formazioen artean (emakumeak bakarrik, gizonak bakarrik edo mistoak) kontzertuen ordutegiari dagokionez; izan ere, gauez dira gehienetan (kontzertu guztien % 73-75).



2.6. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, hizkuntzaren arabera

5. taula: banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
EUSKARA	41,5	33,1	36,1
GAZTELANIA	10,6	24,8	24,6
HAINBAT HIZKUNTZA*	9,8	12,9	13,1
BESTE BATZUK	10,6	13,2	8,2
HIZKUNTZA GABE	17,1	9,9	6,6
EZEZAGUNA	10,6	6	11,5
GUZTIRA	100	100	100

*Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan ematen dituzten kontzertuak dira gehienbat.


Interpreteen sexua edozein dela ere, euskara da EAeko kontzertuetan gehien entzuten den hizkuntza, gaztelania atzetik duela.

Genero ikuspegitik, emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute beren kontzertuetan gizonak baino, baina gutxiago aritzen dira beste hizkuntza batzuetan, hala nola ingelesez edo frantsesez.



2.6.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, hizkuntzaren arabera. Azterketa horizontala

3. grafikoa: parte hartzea, hizkuntzaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Hizkuntza guztietan da minoritarioa emakumez bakarrik osatutako formazioen parte hartzea, batez ere hizkuntza gabeko kontzertuetan –klasikoa, instrumentala...(%7,3)– eta beste hizkuntza batzuetan –ingeleza, frantsesa... (%8,6)–.

Gainera, azpimarratzekoa da gaztelaniazko 4 kontzertutik 3 gizonen soilik osatutako formazioenak direla.



2.7. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, Lurralde Historikoaren arabera

6. taula: banaketa, Lurralde Historikoaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
ARABA	20,3	16,9	16,4
BIZKAIA	41,5	41,7	50,8
GIPUZKOA	38,2	41,4	32,8
GUZTIRA	100	100	100


Emakumez bakarrik osatutako formazioen kontzertuek presentzia handiagoa dute Bizkaian: 10etik 5 bertan egiten dira.

Gizonez soilik osatutako formazioen kontzertuak, aldiz, banatuago daude Bizkaian eta Gipuzkoan: 10etik 4 lurralde bakoitzean.



2.7.1. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, Lurralde Historikoaren arabera. Azterketa horizontala

4. grafikoa: parte hartzea, Lurralde Historikoaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Hiru Lurralde Historikoetan emakumeek oso presentzia txikia dute zuzeneko musika emanaldietan.

Gipuzkoan dago zuzeneko musika jarduera maskulinizatuen (kontzertuen % 10 baino ez dira emakumez bakarrik osatutako formazioenak). Aldiz, Bizkaian igo dira gehien oholtzara emakumez soilik osatutako formazioak; hala ere, urte guztian probintzian egindako kontzertuen % 15 bakarrik dira.



2.8. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, kontzertu esparru motaren arabera

7. taula: banaketa, kontzertu esparru motaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
MUSIKA ARETOA	15,4	39,1	18,0
ANTZOKIA / AUDITORIUMA	8,9	6,0	11,5
TABERNA / DISKOTEKA	4,1	5	-
ZENTRO HANDIAK / ERABILERA ANITZEKO ARETOAK	14,6	7,0	18,0
KANPOALDEA	31,7	14,6	27,9
KULTUR ETXEA / GIZARTE ETXEA	5,7	5,3	6,6
GAZTETXEA	4,1	12,6	1,6
MUSIKA ESKOLA	2,4	0,3	-
ESPAZIO ERLIJIOSOA	4,1	3	8,2
FINANTZA ERAKUNDEA	0,8	-	1,6
IKASTETXEA	0,8	0,3	1,6
BESTE BATZUK	5,7	5,0	4,9
EZEZAGUNA	1,6	2,0	-
GUZTIRA	100	100	100


Gizonez bakarrik osatutako musika formazioen 10 emanalditik 4 musika aretoetan dira.

Bestalde, emakumez soilik osatutako formazioen 10 kontzertutik 3 kanpoan (plazak, espazio publikoak...) dira; gizonez bakarrik osatutako formazioen kasuan, berriz, 10 kontzertutik 1 soilik da aire zabalean.



2.8.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, kontzertu esparru motaren arabera. Azterketa horizontala

5. grafikoa: parte hartzea, kontzertu esparru motaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Musika aretoak, tabernak eta diskotekak eta gaztetxeak dira **espazio maskulinizatuenak**.

Ikastetxeak eta finantza erakundeek kudeatzen dituzten musika espazioak dira **emakumeen eta gizonen zuzenekoiei dagokienez oreka handiena erakusten duten tokiak**.



2.9. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, musika motaren arabera

8. taula: banaketa, musika motaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
MUSIKA KLASIKOA	16,3	3,3	11,5
GAINERAKO MUSIKA*	83,7	96,7	88,5
GUZTIRA	100	100	100


*Musika klasikoa ez beste genero guztiak hartzen ditu barnean: garaikidea, elektronikoa, herrikoia, munduko musikak...

Emakumeek zein gizonek —batez ere gizonek— musika garaikidea eta herrikoia jotzen dituzte gehienbat.

Musika klasikoak emakumeen musika jardueraren % 12 hartzen du; gizonen kasuan, % 3 baino ez.

2.9.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, musika motaren arabera. Azterketa horizontala

6. grafikoa: parte hartzea, musika motaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Musika garaikidean eta herrikoian gehien aritzen direnak gizonez bakarrik osatutako formazioak dira; 10 kontzertutik ia 7 haienak dira.

Musika klasikoan, aldiz, formazio mistoak dira oholtzara gehien igotzen direnak (zuzeneko musika emanaldien erdiak baino gehiago emakumezko eta gizonezko kideak dituzten formazioenak dira).

2.10. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, musika formazioaren arabera

9. taula: banaketa, musika formazioaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
BAKARLARIA	-	26,2	67,2
BIKOTEA	10,6	5,0	6,6
TALDEA	89,4	68,9	26,2
GUZTIRA	100	100	100

Emakumeen 10 kontzertutik ia 7 bakarka dira. Kontrakoa gertatzen da gizonen kontzertuekin: **gizonak talde gisa antolatzen dira gehienetan**; 3 gizonez edo gehiagoz osatutako formazioenak dira haien 10 emanalditik ia 7.



2.11. Emakumeen eta gizonen banaketa kontzertuetan, musika formazioaren jatorriaren arabera

10. taula: banaketa, musika formazioaren jatorriaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEEK BAKARRIK
EAE	55,3	54,0	54,1
ESTATUKO GAINERAKO LURRALDEAK	23,6	24,2	27,9
ATZERRIA	9,8	16,6	14,8
PLURINAZIONALA*	6,5	1,3	1,6
EZEZAGUNA	4,9	4,0	1,6
GUZTIRA	100	100	100

Kideen jatorriari dagokionez, ez dago alde nabarmenik formazioen artean (emakumeak bakarrik, gizonak bakarrik edo mistoak). Jatorri ohikoena EAE da; % 54-55 ingurukoa hiru kasuetan.


Bigarren jatorri ohikoena, kasu guztietan, Estatua da (Estatuko gainerako lurraldeak).

*Jatorri plurinazionalako kontzertuetan EAEko eta handik kanpoko interpreteek parte hartu dute.



2.11.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea kontzertuetan, musika formazioaren jatorriaren arabera. Azterketa horizontala

7. grafikoa: parte hartzea, musika formazioaren jatorriaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Jatorriari dagokionez, emakumez bakarrik osatutako formazioak ez dira nagusi kasu batean ere, eta horietako batean baino ez dute % 14tik gorako presentzia (Estatuko gainerako lurraldeak).

Nabarmendu behar da atzerriko artisten artean errealitatea are maskulinizatuago dagoela: kasu horretan, 10 kontzertutik 7 gizonen soilik osatutako formazioenak dira.

3. Diskoen azterketa

2022an EAEko musika
sorkuntzetan emakumeek eta
gizonek izandako presentzia eta
parte hartzea





3.1. Interpreteen banaketa diskoetan, sexuaren arabera.

Azterketa horizontala

% 10,9

EMAKUMEAK

% 89,1


GIZONAK

Musika sorkuntzan dabilzan gehien-gehienak gizonak dira: diskoetako interprete guztien % 89,1 gizonak dira; emakumeen presentzia, aldiz, % 10,9koa da.



3.2. Musika formazioen banaketa, kideen sexuaren arabera. Azterketa horizontala

8. grafikoa: formazioak, kideen sexuaren arabera. Azterketa horizontala (%)



■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik

11. taula: formazio mistoen banaketa. Azterketa horizontala (%)

	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA
MISTOA	30,4	69,6	100

- EAEko formazioek 2022an argitaratutako diskoak genero ikuspegitik aztertuta, honako hau ondoriozta daiteke:
- **4tik 3 gizonez bakarrik osatutako formazioenak dira; 10etik 0,6 baino ez dira emakumez soilik osatutako formazioenak.**
- Formazio mistoen partaidetza duten diskoetan ere emakumeen presentzia minoritarioa da (% 30,4).



3.3. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, diskoaren formatuaren prezioaren arabera

12. taula: banaketa, diskoaren formatuaren prezioaren arabera (€)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEEK BAKARRIK
CD-AREN PREZIOA	11,2	11,2	10
BINILOAREN PREZIOA	17,7	14,6	19
DISKO DIGITALAREN PREZIOA	7,4	8,2	7,7
BESTE FORMATU BATZUEN PREZIOA	-	6	-

Emakumez bakarrik osatutako formazioek biniloan argitaratutako diskoak 4€ garestiagoak dira gizonez soilik osatutako formazioenak baino.

CDen kasuan, gizonez bakarrik osatutako formazioen diskoak euro bat garestiagoak dira emakumez soilik osatutako formazioenak baino.



3.4. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, hizkuntzaren arabera

13. taula: banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
EUSKARA	52,2	42,9	75
GAZTELANIA	8,7	18,4	12,5
HAINBAT HIZKUNTZA*	21,7	10,2	-
BESTE BATZUK	13,0	20,4	12,5
HIZKUNTZA GABE	4,3	8,2	-
GUZTIRA	100	100	100

*Hizkuntza ezberdinetan abesten duten formazioen parte hartzea duten diskoak dira gehienbat.


Emakumez bakarrik osatutako formazioen diskoak euskaraz dira batez ere (4tik 3).

Gizonez soilik osatutako formazioen kasuan, hizkuntza aniztasuna handiagoa da. Hala ere, euskara da erabiliena (% 43); ondoren, gaztelania (% 18) eta beste hizkuntza batzuk, hala nola ingelesa, frantsesa... (% 20).



3.4.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea diskoetan, hizkuntzaren arabera. Azterketa horizontala

9. grafikoa: parte hartzea, hizkuntzaren arabera. Azterketa horizontala (%)



Gizonek argitaratutako diskoak dira nagusi aztertutako hizkuntza guztietan, bereziki gaztelaniaz: 10etik ia 9 gizonez bakarrik osatutako musika formazioenak dira.

*Hizkuntza ezberdinetan abesten duten formazioen parte hartzea duten diskoak dira gehienbat.



3.5. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, formatuaren arabera

14. taula: banaketa, formatuaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
CDa	33,3	31,4	33,3
BINILOA	20,8	14,5	26,7
DIGITALA	37,5	35,8	40
BESTE BATZUK	-	1,3	-
EZEZAGUNA	8,3	17,0	-
GUZTIRA	100	100	100


CDa eta digitala dira formatu ohikoenak, bai emakumez bakarrik osatutako formazioen diskoetan (% 33 CDa eta % 40 digitala), bai gizonez soilik osatutako formazioen diskoetan (% 31 CDa eta % 36 digitala).

Biniloei dagokienez, emakumeek joera handiagoa erakusten dute beren diskoak formatu horretan argitaratzeko: emakumez bakarrik osatutako formazioen 10 diskotik 3 biniloan dira; gizonez soilik osatutako formazioen kasuan, 10etik 1 bakarrik.



3.5.1. Emakumeen eta gizonen parte hartzea diskoetan, formatuaren arabera. Azterketa horizontala

10. grafikoa: parte hartzea, formatuaren arabera. Azterketa horizontala (%)



CDan eta digitalean argitaratutako 10 diskotik 7 gizonen bakarrik osatutako formazioen musika lanak dira.

Formatu batean soilik egiten du behera gizonen presentziak: biniloan (ia % 60ra jaisten da). Emakumez bakarrik osatutako formazioen diskoen % 10 baino gehiago dira formatu horretan.



3.6. Emakumeen eta gizonen banaketa diskoetan, musika formazio motaren arabera

15. taula: banaketa, musika formazio motaren arabera (%)

	MISTOA	GIZONAK BAKARRIK	EMAKUMEA BAKARRIK
BAKARLARIA	-	30,6	75
BIKOTEA	8,7	9,2	-
TALDEA	91,3	60,2	25
GUZTIRA	100	100	100

Gizonez bakarrik osatutako formazioen artean taldea da antolatzeko modu ohikoena.

Emakumez soilik osatutako formazioen artean, aldiz, bakarka aritzea da ohikoena.

4. Datuen laburpena

2022an EAEko musika sorkuntzetan eta ekitaldietan emakumek eta gizonek izandako presentzia eta parte hartzea





4.1. Kontzertuen azterketa

INTERPRETEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ % 18,6 emakumeak, % 81,4% gizonak. 			
FORMAZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ 10 musika formaziotik 6 gizonez bakarrik osatuta daude; 10etik 1 baino ez dago emakumez soilik osatuta. ○ Formazio mistoetan ere emakumeen presentzia minoritarioa da (% 31). 			
PREZIOA ETA DOAKOTASUNA	<p>Emakumeen kontzertuak: 9,32€</p>	<p>Gizonen kontzertuak: 11,14€</p>	<p>Formazio mistoen kontzertuak: 11,82€</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Emakumez bakarrik osatutako formazioen kontzertuen % 44,3 doakoak dira. ○ Gizonez soilik osatutako formazioen kontzertuen % 73,8 ordainpekoak dira.
ASTEKO EGUNA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gizonez bakarrik osatutako formazioen 10 kontzertutik 8 ostiraletan, larunbatetan edo igandeetan dira. Emakumez soilik osatutako formazioen kasuan, 10etik 7. ○ Astegunetan programatutako kontzertuen % 18,2 emakumez bakarrik osatutako musika formazioenak dira. 			
ORDUTEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen artean kontzertuen ordutegiari dagokionez; oro har, gauez programatzen dira. 			
HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Orokorrean, euskara da kontzertuetan gehien entzuten den hizkuntza, gaztelania atzetik duela. Emakumez bakarrik osatutako formazioek apur bat gehiago erabiltzen dute euskara, baina gutxiagotan aritzen dira beste hizkuntza batzuetan, hala nola ingelesez edo frantsesez. 			



4.1. Kontzertuen azterketa

LURRALDE HISTORIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Emakumez bakarrik osatutako formazioen 10 kontzertutik 5 Bizkaian dira; gizonez soilik osatutako formazioenak, aldiz, banatuago daude. ○ Gipuzkoan dago zuzeneko musika jarduera maskulinizatuen (kontzertuen % 10 baino ez dira emakumez bakarrik osatutako formazioenak). Bizkaian handiagoa da emakumeen parte hartzea (kontzertuen % 15 emakumez soilik osatutako formazioenak dira), baina minoritarioa izaten jarraitzen du.
KONTZERTU ESPARRU MOTA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gizonez bakarrik osatutako formazioen 10 kontzertutik 4 musika aretoetan dira. Bestalde, emakumez soilik osatutako formazioen kasuan, 10etik 3 kanpoan dira. ○ Musika aretoak, tabernak eta diskotekak eta gaztetxeak dira espazio maskulinizatuenak. Aldiz, ikastetxeak eta finantza erakundeek kudeatzen dituzten musika espazioak dira emakumeen eta gizonen parte hartzeari dagokionez oreka handiena erakusten dutenak.
MUSIKA MOTA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Emakumeek zein gizonek musika garaikidea eta herrikoia jotzen dituzte batez ere. ○ Musika garaikidean eta herrikoian, 10 kontzertutik 7 gizonez bakarrik osatutako formazioenak dira. Musika klasikoan, ordea, emanaldien erdiak baino gehiago formazio mistoenak dira.
FORMAZIO MOTA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Emakumeen 10 kontzertutik 7 bakarka dira. Gizonen artean, 3 gizonez edo gehiagoz osatutako formazioenak dira 10etik 7.
MUSIKA FORMAZIOAREN JATORRIA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Interpreteen jatorri ohikoena EAE da (kasuen % 54-55). ○ Atzerriko artisten artean, 10 kontzertutik 7 gizonez bakarrik osatutako formazioenak dira.



4.2. Diskoen azterketa

INTERPRETEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ % 10,9 emakumeak, % 89,1 gizonak.
FORMAZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ 4 diskotik 3 gizonez bakarrik osatutako formazioenak dira. Emakumez soilik osatutako formazioek argitaratutakoak 10etik 0,6 baino ez dira. ○ Formazio mistoen diskoetan ere emakumeen presentzia minoritarioa da (% 30,4).
PREZIOA, FORMATUAREN ARABERA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Emakumez bakarrik osatutako formazioek biniloan argitaratutako diskoak: 4€ garestiagoak. ○ Gizonez soilik osatutako formazioek CDan argitaratutako diskoak: euro bat garestiagoak. ○ Formatu digitalean: ez dago ezberdintasunik.
HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gizonez bakarrik osatutako formazioek argitaratutako diskoak nagusi dira aztertutako hizkuntza guztietan. ○ Emakumez soilik osatutako formazioek argitaratutako 4 diskotik 3 euskaraz dira. Gizonez bakarrik osatutako formazioen kasuan, hizkuntza aniztasuna apur bat handiagoa da (% 43 euskaraz, % 18 gaztelaniaz...).
FORMATUA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Oro har, CDa eta digitala dira formatu ohikoenak. Emakumez bakarrik osatutako formazioek joera handiagoa erakusten dute beren lanak biniloan argitaratzeko (10etik 3) gizonez soilik osatutako formazioek baino (10etik 1). ○ CDan eta digitalean argitaratutako 10 diskotik 7 gizonez bakarrik osatutako formazioen lanak dira. Biniloen kasuan baino ez du behera egiten gizonen presentziak (ia % 60ra jaisten da).
FORMAZIO MOTA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gizonez bakarrik osatutako formazioen artean taldea da antolatzeko modu ohikoena. Emakumez soilik osatutako formazioen artean, aldiz, bakarka aritzea da ohikoena.